

DIRU-ITURRIAK

Diru sarreren funtzioari dagokionez, eskaintzen diegun produktuaren truke, gure bezeroak zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden jakitea garrantzitsua da. Hau da, gure produktuak, bezeroak kontuan hartuta, zenbateko prezioa izango duen zehaztea. Horretarako, ordainketa bakarreko diru-sarrerak onartuko ditugu. Hauek garaiz (aldi batean) edo epeka (hilabetero kuota bat ordainduz adibidez) egin daitezke.

Egitasmo guztietan bezala, dirua beharrezkoa da. Dirua hasierako inbertsioak egiteko, hazi ahal izateko, ezustekoei aurre egiteko, kostuak ordaintzeko, enpresa zeharoan iraun ahal izateko... erabiliko da. Baina nondik lortuko du *Alcohol Free* enpresak finantzazioa?

Nondik aterako ditugu diru-sarrerak?

- Hasieran, Estatuaren diru laguntza edota maileguetatik. Baita, publizitatearen bitartez, beste enpresa batzuekin akordioak eginda edota hainbat ebento eginda.
- Bestetik, diru-sarreretatik. Hauek salmenta-prezioaren araberakoak izango dira:

Gure produktuaren prezioa gutxi gorabehera 16.000€-koa izango da. Enpresak 14.000-15.000€-tan erosiko ditu kotxeak, eta alkoholimetroak 30€-tan. Horregatik, gure etekinak gutxi-gorabehera 1200€-koak izango dira. Etekin horiek gure enpresan berrinbertituko ditugu, langileen soldatak eta beharrezko gastuetan.

